

EAJren eta PSE-EEren Trantsizio energetikoaren aldeko mozioa

Energia oinarritzko baliabide bat da, eta egungo kontsumo energetikoa, nagusiki, erregai fosiletan oinarritzen da, berotegi efektuko gasak eragiten dituzten eta agortze bidean dauden lehengaietan, hain zuzen. Horregatik, beharrezkoa da, energiaren deskarbonizazioarekin batera, energia berriztagarriak eta garbiak erabiltzeko urrats irmoak egin eta politikak sustatzea.

Ukrainako gerrak are gehiago azalarazi du Euskal Herriak duen energia menpekotasuna. Hemen kontsumitzen dugun energia munduko beste leku batzuetatik dator, merkatuen menpe dago eta horren ondorio da etengabe ari dela garestitzen energiaren prezioa eta ondorio horiek guztiak herritarrek jasango dituzte beste behin.

Egun, herri bezala, %90etik gorako (%92) menpekotasun energetikoa dugu. Hau da, kanpoan ekoizten da eta hona ekarri.

Bestalde, industria da gure Barne Produktu Gordinean eragina duena. Hortik dator gure ongizatea, hortik gerora gizarteari eskaintzen zaizkion zerbitzuak. Eta industria elektointensiboa da. Energia behar izugarria du gure industriak eta herri bezala aurrera egin nahi badugu, ezinbestekoa da energia hori pixkanaka guk geuk sortzea.

Horregatik guztiagatik, trantsizio energetikoaren erronka premiazkoa eta urgentziazkoa da. Gauza asko eta oso azkar aldatu behar ditugu, baina gure premisa argia da arlo honetan ere: trantsizioak iraunkorra, berriztagarria, justua eta inklusiboa izan behar du ahal den heinean, inor baztertu edo atzean utziko ez duena eta herrikideen arteko berdintasuna bermatzea izango duena bokazio gisa.

Energiaren erronkari modu kolektiboan erantzutea funtsezkoa da. Zentzu horretan, garrantzitsua da Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala lehenbailehen egitea eta Eolikoan Lurralde Plan Sektoriala berritzea. Trantsizio energetikoa bera ematea bezain garrantzitsua da berau adostua izatea.

Guzti hau dela eta, Azkoitiko Udaltzarak ondorengoa eskatzen du:

1. Azkoitiko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Buruzai eolikoan proiektuak eduki ditzakeen ingurumen eta bestelako eraginak aztertu eta ingurugiro inpaktua ahalik gehien gutxituko dituen alternatibak aztertu arazi ditzala.
2. Azkoitiko Udalak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio ahalik eta azkarren Energia Berriztagarrien Plana gaurkotu dezan.
3. Azkoitiko Udalak, industriaz gain, herritarrekin eta energia-komunitateekin ere lan egingo du, eguzki-jatorrikoak zein eolikoak izan, non autokontsumo irizpideak aplikatzen diren, eta proiektu eolikoak plangintzarekin eta ingurumen-berme handienekin egiten diren.
4. Azkoitiko Udalak konpromisoa hartzen du proiektuaren nondik norakoak jakin ahala, gainontzeko Alderdiekin partekatuz, herria bera onuradun izan dadin lan egitea.
5. Azkoitiko Udalak, behin proiektuaren nondik norakoak jakin ondoren, proiektuaren zehaztasunak herritarrei jakinaraziko dizkie.